**EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIAREN KONTROL ETA GARDENTASUN BATZORDEA**

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordean 2024ko azaroaren 5ean hartutako Erabakia.

Egun horretako bileran, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordeak hauxe erabaki du:

Bigarren puntua.- Vitoria-Gasteizko Udaleko Alkatetza-Udalburutzak eskatu zuen Vitoria-Gasteizko Udaltzaingoaren 2023ko martxoaren 6ko jarduketa, A/23/0717-0 Atestatuan jasota dagoena, aztertzeko eta horri buruzko txosten bat egiteko. Horretarako 3/2023 espedientea izapidetu zen eta horren inguruan Batzorde honek hau erabaki du:

Vitoria-Gasteizko Udaleko Segurtasuneko zuzendari nagusiari eskatzea Batzorde honi bidaltzeko AE 491/2023 prozedura penalean jarraitutako jarduketen egoerari buruzko informazioa; izan ere, Vitoria-Gasteizko 4 zk.ko Instrukzio Epaitegiak irekitako prozedura horretan Vitoria-Gasteizko eta identifikazio-zenbakiko udaltzainek ikertu gisa parte hartu zuten. Horrez gain, eskatzen da Vitoria-Gasteizko Udaleko Segurtasun Sailaren esku dauden AE 491/2023 aurretiazko eginbideetatik eratorritako jarduketa judizial guztien kopia sinplea eta, hala badagokio, prozesu penalaren amaiera eragin duen ebazpen judiziala ere bai.

Halaber, Herritarren Segurtasuneko Zuzendaritza Nagusi horri eskatzen zaio Batzorde honi informatzeko 2023ko ekainaren 9an bi agente horiei irekitako diziplina-prozeduren egoeraz; izan ere, prozedura horiek data horretan bertan etenda geratu ziren harik eta jarduketa penalak amaitu arte. Hori dela eta, Zuzendaritza Nagusi horri eskatzen zaio 2023ko ekainaren 9tik gaur

**COMISIÓN DE CONTROL Y TRANSPARENCIA DE LA POLICÍA DEL PAÍS VASCO**

Acuerdo adoptado en la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco, el 5 de noviembre de 2024.

En la reunión celebrada en la fecha indicada, por la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco, se decidió:

**Punto Segundo.-** En relación con la instrucción del expediente 3/2023, tramitado para la emisión del informe solicitado por la Alcaldía-Presidencia del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz sobre la actuación desarrollada el día 6 de marzo de 2023 por la Policía Local de Vitoria-Gasteiz que se refleja en el Atestado A/23/0717-0, por esta Comisión se adopta el siguiente acuerdo:

Interesar del Sr. Director General de Seguridad del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz que se dé traslado a la Comisión de la información que esté a su disposición sobre el estado de las actuaciones seguidas en el procedimiento penal DP nº 491/2023 incoado por el Juzgado de Instrucción nº 4 de los de Vitoria-Gasteiz en el que comparecieron como investigados los agentes de la Policía Local de Vitoria-Gasteiz con números de identificación y 1. Con inclusión de una copia simple de todas las actuaciones judiciales dimanantes de las DP nº491/2023 que obren a disposición del Departamento de Seguridad del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, incluida, en su caso, la resolución judicial que haya dado fin al proceso penal.

Así mismo, se interesa que por dicha Dirección General de Seguridad Ciudadana se informe a esta Comisión sobre el estado de situación de los procedimientos disciplinarios, incoados con fecha de 9 de junio de 2023, a los dos agentes referenciados y que, en esa misma fecha, fueron suspendidos en su tramitación hasta la conclusión de las actuaciones penales. A este

arte diziplina-espediente horiekin lotuta emandako ebazpen guztien kopia sinplea bidaltzeko.

efecto se requiere de esa Dirección General la facilitación de copia simple de todas las resoluciones recaídas en dichos expedientes disciplinarios desde el día 9 de junio de 2023 hasta el día de la fecha.

Segurtasuneko zinegotzi delegatuari erabaki honen berri eman behar zaio.

Se dará traslado de este acuerdo al Sr. Concejal Delegado de Seguridad.

COMISIÓN CONTROL Y TRANSPARENCIA DE LA POLICÍA DEL PAÍS VASCO

Firmado digitalmente por COMISIÓN CONTROL Y TRANSPARENCIA DE LA POLICÍA DEL PAÍS VASCO
Fecha: 2024.11.15 12:21:06 +01'00'